



2025ETIK 2028RA (BI URTEAK BARNE) SANTA ISABEL ETA SALBATZAILEAREN HILERRIETAN LORE-SALTOKIAK IPINTZEKO BAIMENAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. BAIMEN KOPURUA

Deialdi honen helburua da Gasteizko udalerrian jartzen diren aldi baterako lore-saltokiak esleitzea 2025etik 2028ra bitarteko eperako (bi urteak barne). Zehazki:

- a) Salbatzailearen hilerriko urte osoko lore azoka: 3 lizentzia.
- b) Santu Guztien Eguna dela eta jartzen den lore azoka:
 - I. Santa Isabel hilerria: 10 lizentzia.
 - II. Salbatzailearen hilerria: 21 lizentzia.

2. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Deialdi honetan ezarritakoari jarraituz loreak saltzen jarduteko baimena lortu nahi duten interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Nahitaezko agiriak:

- Eskabide-orri ofiziala - erantzukizunpeko adierazpena ereduaren arabera.
- Pertsona fisikoen kasuan: titularraren zein titularkidearen nortasun agiriaren fotokopia edo, Europako Batasunaz kanpoko kasuan, indarreko legedipean baliodun den atzeritarren identifikazio txartela edo agiri parekidearen fotokopia.
- Pertsona juridikoen kasuan, eratze-eskrituren fotokopia, eskatzailearen ordezkate-ahalmena eta identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.
- Eskatzaileak ordezkari bidez jardunez gero, ordezkariaren NANaren edo horren baliokidea den agiriren baten kopia, bai eta ordezkate-ahalmena egiaztatzen duen agiria ere.
- Azokan zehar, salmentaren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.
- Titularrari eta titularkideei (direla bazkide, direla soldatapeko) dagozkien Gizarte Segurantzako azken ordainagirien fotokopiak. Halakorik ez izatekotan, Gizarte



Segurantzaren jarduera hasi aurreko dagokion erregimenean emandako altaren fotokopia.

- Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren alta, edo Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren barruan dagokion epigrafean alta eta bajen egiaztatzea

Santu Guztien Eguna dela eta jartzen den lore azokarako baimenen kasuan, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren alta emanda egotearen egiaztatzea, polizaren ordaintza-egiaztatzea eta Gizarte Segurantzaren agiria, jarduera hasten den hilabetean aurkeztu ahal izango da, jarduera hasi baino astebete lehenagora arte.

Halaber, saltzeko lizentzia emango bazaio, deialdia egin duen tokiko administrazioari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu eskabidea egiten duen pertsonak.

3. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Eskabideak **azaroaren 18tik 29ra** bitartean aurkeztu behar dira, eta leku hauetan:

- udalaren bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea) 8:30etik 14:00etara
- gizarte etxeen sareko Herritarrei laguntzeko bulegoetan
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100

Eskabidea postaz bidaltzen bada Udalaren bulego teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz—, posta ziurtatuz egin beharko da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz (comercio@vitoria-gasteiz.org), eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehen (egun hori barne). Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta era frogagarrian identifikatu beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, baliteke eskabidea ezestea.

Eskaera-aldiaren ondoren eta lizentzien indarraldian zehar, beste eskaerak onartu ahal izango dira, eta, lizentzia eskuragarri ez badago, itxaron-zerrenda batean sartuko dira. Halakoetan,



itxarote-zerrendaren hurrenkera eskabidea udal-erregistroan sartu den egun/ordu/minutu hurrenkeraren arabera definitutako irizpidearen arabera zehaztuko da.

4. BAIMENAK ESLEITZEA

Honako hauek emango dira:

- Gehienez urte osorako 3 baimen emango dira Salbatzailearen hilerrirako.
- Santu Guztien Eguna dela-eta, Santa Isabel hilerrirako gehienez 10 lizentzia.
- Santu Guztien Eguna dela-eta, Salbatzailearen hilerrirako 21 lizentzia gehienez.

Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdiaren oinarriak onartzen direla esan nahiko du.

Oro har, ez da eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo.

Eskatzaileek **gehienez ere 3 toki hautatu** ahal izango dute, erantsitako planoan kontuan hartuta, eta eskaera-orrian markatuko dituzte saltoki-zenbakiak, beren lehentasunaren arabera.

Santu Guztien Egunerako jasotzen den eskabide kopurua esleitzeko dagoen baimen kopurua baino handiagoa bada **zozketa** bidez esleituko dira. Esleipendun suertatzen ez diren eskabideekin erreserba zerrenda osatuko da, zozketarekin bat datorren hurrenkeraren arabera.

Urteko lizentziatarako jasotako eskaerak gehienezko baimen kopurua baino gehiago badira, lehenetsi egingo dira saltokira egun gehiagotan joango diren interesdunen eskabideak, interesdunek eskabidean ezarritakoaren arabera; irizpide hori erabakigarria ez bada zozketa bidez egingo da. Esleipendun suertatzen ez diren eskabideekin erreserba zerrenda osatuko da, zozketarekin bat datorren hurrenkeraren arabera.

Hainbat eskatzailek saltoki bera eskatzen badute, aurreko deialdian esleitutako kokapena hartuko da kontuan lehenik, eta irizpide hori erabakigarria ez bada, zozketa bidez esleituko da. Eskatutako saltokiak esleituta egonez gero, eskatutako saltokitik hurbilen eta eskuragarri daudenak esleitzeari ekingo litzaioke. Era berean, El Salvadorreko hilerriaren kasuan, urteko salmentarako eskabideek lehentasuna izango dute saltokia aukeratzeko.



Kokalekurako preferentziarik adierazi ez diren eskabideetan, saltokien esleipena egingo da zenbakien hurrenkera naturalari jarraituta. Dena dela, Udalak bere gain izango du saltokiak birkokatzeko eskubidea, eskaeraren eta saltokiak antolatzeko beharren arabera.

Esleipendunen eta erreserban geratutakoen zerrendak **abenduaren 16tik** aurrera egongo dira eskuragarri 010 telefonoan eta udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org).

Irizpide hauek hartuko dira aintzat hutsik geratutako saltokietarako:

1. Itxarote zerrenda
2. Irekia; deialdi hau indarrean dagoen bitartean eskabideak aurkez daitezke. Saltoki liberrik egonez gero, zuzenean esleituko dira. Eskabide berrietarako saltoki liberrik ez badago, itxarote-zerrenda bat egingo da, eskabidea erregistroan sartu den dataren arabera ordenatuta.

5. BAIMENEN IRAUPENA

- a) Salbatzailearen hilerriko urteko lore-azoka: ematen denetik 2028ko abenduaren 31ra arte.
- b) Santu Guztien Eguna dela eta jartzen den lore-azokak astebete iraungo du, Santu Guztien Egunaren aurreko igandetik hasita hurrengo igandera arte. Salbuespen gisa, Merkataritza Zerbitzuak datak aldatu ahal izango ditu merkaturen interesetara egokitzeko.

6. SALTOKIETAKO LANGILEAK. ESKAKIZUNAK

- Baimenen esleipendunek eta ez beste inork saldu ahalko dute.
- Ezinbestekoa da interesdunek Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Ofizioz egiaztatuko da betekizun hori betetzen den.
- Titularrak zein titularkideek Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta emanda egon beharko dute baimenak irauten duen denbora osoan.



- Pertsona juridikoen kasuan, soldatapeko langileak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta emanda egon beharko dira, besteren konturako langile gisa.
- Ekonomia jardueren gaineko zergan dagokion epigrafean izena emanda egotea eta tarifaren ordainketa egunean egotea, edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan izena emanda egotea... Ofizioz egiaztatuko da.
- Beste herrialde batzuetakoek bizileku- eta lan-baimenen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
- Merkataritza-jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia izatea, ordainduta, eta indarrean.
- Araudi espezifikoek ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak zein bestelakoak betetzea.
- Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea.
- Gainerako betekizunei dagokienez Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Ordenantzan ezarritakoari jarraituko zaio.

7. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK

- Salbatzailearen hilerriko urte osoko lore azokarako ematen diren baimenek eskatutako egun guztietarako balioko dute, ematen direnez geroztik, bai eta Santu Guztien Eguna dela eta oinarri hauetan adierazitako egunetarako.
- Santu Guztien Eguna dela eta saltokiak jartzeko baimenek oinarri hauetan adierazitako datetarako balioko dute.
- Santa Isabel hilerrian, sarreraren ondoan jarriko dira lore-saltokiak, harresiaren ondoko espaloi zatian, trafikoari nahiz oinezkoen joan-etorriei enbarazurik ez egiteko moduan eta hilerrirako sarrera bera oztopatu gabe, erantsitako planoan ageri den bezala.
- Salbatzailearen hilerrian, berriz, sarbideko zuhaitz ilararen ondoan jarriko dira, espaloitik nahiz aparkalekutik kanpo, sarrerako atea libre uzten delarik.



- Saltoki bakoitzak gehienez 4 metroko luzera izan ahalko du.
- Baimenen esleipendunak arduratu beharko du erabilitako gunea garbitzeaz eta jardueraren ondorioz sortzen diren hondakinak biltzeaz; lekua garbi eta erabiltzeko moduan utzi beharko da, bai egun bakoitzaren amaieran, baita denbora-tarte guztiaren amaieran ere.
- Esleipenaren titularrek edo titularkideek bere gain hartzen dituzte betebeharrak hauek: salmentan eurak aritzea, saltokia hilerrien jendearentzako ordutegian irekita edukitzea, eta jardueraren gaineko erantzukizun zibileko aseguruia izatea.
- Udalak edo ordezkatzeko duen erakundeak edozein unetan egiaztatu ahal izango du oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla, ikuskaritza bidez.
- Baimenaren titularra izango da jardueraren ondorioz sor litezkeen kalte-galera guztien arduraduna.
- Ezingo da deus zoruari lotuta atxiki, eta behar bezala babestu beharko da hura.
- Udaltzainen aginduak bete beharko dira une oro.
- Debekatuta dago saltokia erdibanatzea, lagatzea edo alokatzea.
- Baimenaren titularrek datu hauek jarri beharko dituzte ikusgai, jendeak zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan:
 - Udalaren baimena.
 - Dagokion urteko ordainagiria.
 - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.

8. TASAREN ORDAINKETA

Saltokiak jartzen direlarik, urtero bide publikoa okupatzeagatik prezioa –udal ordenantza fiskaletan finkatzen dena– ordaindu beharra izango da.

9. LIZENTZIAK ESKURATZEA

Urteko lizentziak abenduaren 16tik aurrera jaso beharko dira Udalaren bulego teknikoetan – Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25–, 8:30etik 14:00etara.

Santu Guztien egunerako lizentziak urtero jaso ahal izango dira, Merkataritza Zerbitzuak baldintzak betetzen direla jakinarazi ondoren.



Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkeztuta –Europar Batasunaz kanpokoan kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia–.

Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar Batasunaz kanpokoan kasuan) den fotokopia erakutsita.